



5/2003 GOMENDIOA, MARTXOAREN 17KOA, EUSKO JAURLARITZAREN HERRIZAINGO SAILARI EGINA, BEHARREZKO TRAMITEAK EGIN DITZAN ZIGOR ESPEDIENTE JAKIN BATEAN PERTSONA BATEK EZ DUELA ERANTZUKIZUNIK ADIERAZTEKO, ESPEDIENTE HORI ETA DERRIGORREZKO DIRU-BILKETA BALIORIK GABE UZTEKO, ETA HORI DELA-ETA ORDAINDU DIREN DIRU-KOPURU GUZTIAK ITZULTZEKO.

Aurrekariak

1. 2001eko urriaren 26an pertsona batek ahozko kexa azaldu zuen erakunde honetan. Kexan zioenez, 2000ko urtarrilaren 25ean, Donostiako Udaltzaingoak salatu egin zuen, gidatzen ari zen ibilgailuak aseguruua zuela ez egiaztatzeagatik.

Ibilgailu hori bere enpresaren esku zegoen, errenta kontratu baten bidez.

2000ko urtarrilaren 28an, beharrezko agiriak aurkeztu ziren Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Bulegoan.

Ez zuen beste berririk izan 2001eko urriaren 25 arte, orduan jakinarazi baitzitzaion gertakari horiengatik ezarritako isun bati zegokion bahitura-probidentzia.

2. Gai horri buruzko informazioa eskatu ondoren, Trafikoko zuzendariak adierazi zigun pertsona hori salatu egin zutela, aseguruua indarrean zeukala egiaztatu ez zuelako.

Geroago, salaketaren erabaki osagarri bat jakinarazi zitzaion azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan ezarritako bideak erabiliz, alferrikakoa izan baitzen norberari jakinarazteko ahalegina.

Azkenik, alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, zigortzeko erabakia hartu zen, motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen 3 b) artikulua urratzeagatik. Erabaki hori ere ediktu bidez eta aldizkari ofizialean argitaratuz jakinarazi zen.

Ordainketarik egin ez zenez, derrigorrezko bilketa gauzatzeko bidea hasi zen.



3. Arartekoak berriro Herrizaingo Sailera jo zuen, jakinarazpen-ahaleginen inguruko zertzeladak eta haiek alferrikakotzat jotzeko arrazoiak justifikatu gabe zeudela adierazteko.

Halaber, zigor espedientea ibilgailuaren gidariaren kontra zergatik egin zen argitzeko eskatu zion sail horri, izan ere, idatziz jasota zegoen hura ez zela ez ibilgailuaren, ez aseguruaren titularra.

4. Trafikoko zuzendariak hauxe adierazi zuen bere erantzunean: salaketaren jakinarazpen osagarria burutzeko ahalegina alferrekoa izan zela, hartzailea nor zen ez zekitelako; eta isunaren jakinarazpena bi aldiz egin zela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.2 artikuluan exijitutako baldintza guztiak betez.

Bestalde, lege-haustea urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretua indarrean jarri baino lehenago egin zela azpimarratzen zuen, eta, bere iritziz, dekretu horren 22. artikulua aldatu egiten duela horrelako lege-hausteengatiko erantzukizunaren titularra, eta ibilgailuaren titularrari egozten diola.

Horregatik, bere ustez, 632/1968 Dekretuaren 3 b) artikulua araberara, salatutako lege-urratzea ibilgailuaren gidariak egin zuen, ez titularrak.

5. Berriz ere Arartekoak idazki bat igorri zion, isuna bere ustez zergatik ez zen zuzen ezarri adierazteko, baina Herrizaingo Sailak ez zituen onartu.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, agerian jarri nahi dugu zer-nolako garrantzia duen zigor prozedura batean jakinarazpen-tramitea behar bezala betetzeak babesteko eskubidea eta prozeduran entzuna izatekoa bermatzeko, izan ere, jakinarazpen horrexen bidez izaten da prozeduraren berri, eta, hortaz, baita eskubide horiek gauzatzeko aukera ere.

Konstituzio Auzitegia sarritan mintzatu da gai horretaz. Adibidez, zera adierazi zuen urtarrilaren 13ko 1/1983 Epaian (RTC 1983\1):

"De todos los preceptos que las leyes procesales dedican a los actos de comunicación con las partes (notificaciones, citaciones, emplazamientos) y aun de los que se ocupan de los medios de impugnación dirigidos a remediar los vicios 'in procedendo', se advierte que el propósito del legislador es, ante todo, conferir a aquellas las garantías para la defensa de sus derechos e intereses, de modo que la notificación, citación o



emplazamiento sirva a su objetivo de que, dando noticia suficiente del acto o resolución que la provoca, sirva para que el notificado, citado o emplazado pueda disponer lo conveniente para defender en el proceso los derechos o intereses cuestionados, por cuanto de faltar tal acto de comunicación o adolecer de nulidad equivalente a su falta, el interesado podría verse imposibilitado para ejercer los medios legales suficientes para su defensa."

Oraintsuago, 2002ko urriaren 28ko Epaiak zera dio (RTC 199\2002):

"...el cumplimiento de los requisitos que las Leyes procesales exigen para practicar el emplazamiento, citación o notificación ofrecen relevancia constitucional y son garantía de que el emplazado, citado o notificado conocerá el acto o la resolución que le afecta y podrá, en consecuencia, ejercer adecuadamente su derecho de defensa."

Horregatik, jurisprudentziak arreta berezia eskatzen du jakinarazpen prozesalak egitean, uste baitu prozedurazko legeek jakinarazpenak egiteko ezartzen dituzten betebeharrak ez direla formazko betebeharrak, baizik eta funtsezko tresna bat, babesik eza galarazteko eta babes judizial eraginkorra izateko eskubidea bermatzeko.

Legeriaren arabera, jakinarazpen-tramitea oker eginez gero, baliorik gabe geratzen dira horrelako prozedura-akatsak dituzten zigorrak. Horixe dio azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 63.2 artikuluan.

2. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak- 59.2 artikuluan ezartzen duenez, jakinarazpenak interesdunaren bizilekuan egiten direnean eta lehen ahaleginean inor ez dagoenean, bigarren ahalegina hurrengo hiru egunetan egin behar da, lehenengo hura ez bezalako orduan.

Xedapen hori bera jasota dago abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuaren 42. artikuluan; jakina denez, dekretu horrek onartzen du posta-zerbitzuen prestazioa erregulatzeko Araudia.

Jakinarazpenaren funtsezko helburua da norberak halako egintza jakin baten berri zuzena izatea. Horregatik, lehen saialdia alferra bada, administrazioak beharrezko arreta eta bitartekoak jarri behar ditu, zentzuz jokatu, helburu hori bigarren saialdian lortzeko..



Modu horretan ulertu behar dira araudiak exijitzen dituen ordutegi ezberdinak; beraz, ordutegizko baldintza horiek ezin dira betetzat jo -nahiz eta jakinarazpen orduak formalki ezberdinak izan- orduen arteko aldea oso txikia denean, hain txikia non, ikuspuntu materialetik, antzekoak diren.

Esaterako, Errioxako Auzitegi Nagusiak, 1998ko abenduaren 12ko Epaian (RJCA 1998\4679), zera dio norberaren bizilekuan bi jakinarazpen-ahalegin egindako kasu bati buruz: 10:22 eta 9:37 ia ordu berdina direla.

Administrazioaren espedientean, prozeduran ezarritako zigorraren bi jakinarazpen-saialdi daude jasota, biak alferrikakoak, jasotzeko inor ez zegoelako. Bi saialdiak posta-zerbitzuek egin zituzten, lehenbizikoa 2000ko maiatzaren 4ko 11:10ean (edo 11:30ean, zein agiri hartzen den kontuan), eta bigarrena, berriz, maiatzaren 8ko 11:00etan.

Bi saialdien orduen arteko aldea 10 minutukoa izan zen (30ekoa, gehienez ere), beraz, gure ustez, ez dira bete arauzko jakinarazpen bat egiteko beharrezkoak diren baldintzak.

3. Abenduaren 3ko 1.829/1999 Errege Dekretuak agintzen duenez, jakinarazpena gordailuan utzi behar da gehienez ere hilabeteko epean, eta hartzaileari hura iritsi dela ohartarazi behar zaio, bere etxeko gutunontzian; ohar horretan garbi adierazi behar da non dagoen jakinarazpena, zein epe duen hura jasotzeko eta bigarren jakinarazpen-ahaleginari buruzko zertzeladak.

Zertzelada horiek guztiek, baita postetxeko langilearen identifikazioak ere, idatziz jasota geratu behar dute langilearen agirietan eta hartu izanaren jakinarazpenean, eta guztiak egiaztatu behar dira zigortzeko prozedurari dagokion administrazio-espedientean.

Auzitegi Gorenak betebeharrak aztertu zuen 1997ko abenduaren 12ko Epaian (RJ 1998\2264); epai horretan, posta-zerbitzuen lehengo arauditik abiatuta -alderdi horri dagokionez, funtsean oraingo araudikoaren oso antzekoa da-, bere iritzia eman zuen azaroaren 26ko 30/1992 Legean agertzen diren ediktu bidezko jakinarazpenaren arauak interpretatzeaz.

Epai horren arabera, funtsezkoa da honako hau: *"esencial la prueba del intento de entrega por dos veces, y de la recepción del Aviso de Llegada, que se ha entregado mediante su introducción en el buzón o casillero correspondiente, prueba que recae sobre el propio Servicio de Correos."*



Gainera, bertan adierazten denez, administrazioari jakinarazpena itzultzen zaionean, jasotzeko epea bukatu delako, administrazioak zera egin behar du, besteak beste: *"debe pedir e incorporar al expediente administrativo certificado del Servicio de Correos (...) en el que se certifique (...) día y hora en que se entregó el Aviso de Llegada [y] Noticia, en su caso, de que el destinatario o persona autorizada por él no se ha personado en la Oficina postal a recoger la carta"*.

Horregatik, bukatzeko haxe dio: administrazioak egintza horiek frogatu dituenen bakarrik jo daitekeela baliozkotzat iragarki bidezko jakinarazpena.

Espediente honetan ez dago frogatuta Correos-ek hartzaileari jakinarazpen-ahalegina iritsi izanaren abisua utzi zionik. Beraz, puntu honetan ere ez dira bete araudiak ezarritako betebeharrak, eta, azken batean, zalantzan jarri behar dugu ezarritako zigorra baliozkoa ote zen.

4. Bestalde, gaiaren mamiaren funtsezko alderdi batzuk ere aipatu behar ditugu, nahiz eta, aurrekoa onartuz gero, alferrikako bihurtuko litzatekeen honelako edozein gogoeta.

Herrizaingo Sailari bidali dizkiogun idazkietan zera azpimarratu dugu: derrigorrezko aseguru bazela eta indarrean zegoela egiaztatzen zuen agiria ez aurkezteagatik salaketa ibilgailuaren gidariaren kontra jarri zela, ez titularraren kontra, nahiz eta elkarte bat agertzen zen titular gisa asegurua polizaren ordainagirian, eta baita ere -ibilgailuaren matrikulatik abiatuta-Trafikoko Bulegoak berak zenbait erregistrotatik lortu zuen informazioan ere.

Sail horren iritziz, arau-hauste hori gertatu zen unean indarrean zegoen araudiak (martxoaren 21eko 632/1968 Dekretua, azaroaren 8ko 30/1995 Legeak -aseguru pribatuak arautu eta ikuskatzekoak- egindako idazketan) ibilgailuaren gidariari egozten zion erantzukizuna.

Haren ustez, urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuaren 22. artikulua aldatu zuen erantzukizun-egozte hori, ordutik aurrera erantzukizuna ibilgailuaren titularrari leporarazteko.

Hala ere, azken testu horrek, egia esan, ez du hura ordezkatu, baizik eta biak batera existitzen dira: alde batetik, martxoaren 21eko 632/1968 Dekretuak bere baitan hartzen du motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legea; eta, bestetik, urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuak bere baitan hartzen du motordun ibilgailuen zirkulazioko



erantzukizun zibilarri eta aseguruari buruzko Araudia, aurreko Araudiaren ordezkoa (aurreko araudi hori abenduaren 30eko 2.641/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

5. Motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilarri eta aseguruari buruzko Legeak 3. artikuluan aipatzen du, hain zuzen, administrazioak lege-haustea ibilgailuaren gidariari leporatzeko oinarritzat hartu duen xedapen hori ("*...la no presentación a requerimiento de los agentes de la documentación acreditativa del seguro será sancionada con 10.000 ptas. de multa*").

Artikulu horrek, aurrekoarekin batera, II. kapituluaren lehen atala osatzen du "*del deber de suscripción del seguro obligatorio*" izenekoa. Atal horretan adierazten diren betebeharrak guztiak ibilgailuaren jabeari dagozkio, ez gidariari. Honela dio:

- *"Todo propietario de vehículos a motor que tenga su estacionamiento habitual en España vendrá obligado a suscribir un contrato de seguro por cada vehículo de que sea titular. (art. 2.1)*
- *Quien, con arreglo al párrafo primero, haya suscrito el contrato de seguro deberá acreditar su vigencia al objeto de que las personas implicadas en un accidente de circulación puedan averiguar a la mayor brevedad posible las circunstancias relativas al contrato y a la entidad aseguradora, sin perjuicio de las medidas administrativas que se adopten al indicado fin. Todo ello en la forma que se determine reglamentariamente. (art. 2.2)*
- *El incumplimiento de la obligación de asegurarse determinará: ... b) El depósito del vehículo, con cargo a su propietario, mientras no sea concertado el seguro. (art. 3)"*

Bestalde, lege-hauste hori "*Incumplimiento de la obligación de asegurarse*", izenburupean agertzen da (jabeari dagozkio betebeharrak), eta badu loturarik honako hau dioten xedapen batzuekin: agintaritzaren agente batek hala eskatuta, ibilgailuak asegurua duela egiaztatzeko agiria erakusten ez bada, ibilgailua zigilatu eta gordetzeko agindua eman daitekeela, jabearen kontu.

Garbi adierazi behar da, garrantzitsua baita, legeak helburu jakin baten menpe jartzen duela jabeak asegurua baduela egiaztatzeko betebeharra, eta helburu horrexek berak justifikatzen duela agiriak aldean ez eramateagatik zigorra jartzea: istripu batean nahastutako pertsonen lehenbailehen jakin ahal izatea aseguruari buruzko datu garrantzitsuak.



Hortaz, lege horren edukian ez dugu aurkitzen inolako agindurik jabea ez den gidariari leporatzeko aztertzen ari garena bezalako lege-hauste baten erantzukizuna. Aitzitik, agindu guztietan, ibilgailuaren jabeari dagozkion betebeharrak aipatzen dira.

6. Gertakaria jazo zen unean, indarrean zegoen abenduaren 30eko 2.641/1986 Errege Dekretua (hor agertzen da motordun ibilgailuen erabileratik eta zirkulaziotik eratorritako erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguruari dagokion Araudia); dekretu horretan, soil-soilik aipatzen da ibilgailuak aseguru duela frogatu beharra dagoela.

Zehazki, zera adierazten da 11. artikuluan:

"La existencia y vigencia del seguro se prueba por el tomador del seguro o por el conductor, mediante el justificante del pago de la prima del período de seguro en curso y el modelo que al efecto autorice el Ministerio de Economía y Hacienda."

Ikusten denez, aseguru badela egiaztatze modua arautzen du, eta egiaztapen hori aseguru-hartzaileak nahiz gidariak egin dezake. Ez du ezer agintzen, ordea, hemen aztertzen ari garen lege-urratzeaz, eta ez du gidariari dagokion erantzukizunik adierazten.

Gainontzeko xedapenek, berriz, goian transkribatutako legean aipatutako betebeharrak ezartzen dizkiote jabeari edo aseguru-hartzaileari. Hauexek:

- *"Todo propietario de un vehículo de motor está obligado a suscribir y a mantener en vigor una póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil del conductor del vehículo. (art. 1.1)*
- *El seguro deberá ser concertado por el propietario del vehículo, considerándole como tal, a estos efectos, la persona natural o jurídica a cuyo nombre figure aquel en el Ministerio que corresponda. (art. 6.1.)*
- *El incumplimiento de la prohibición de circulación por el territorio nacional de los vehículos no asegurados en la forma establecida llevará aparejado el depósito del vehículo, con cargo a su propietario, mientras no sea concertado el seguro, y una sanción pecuniaria de 25.000 a 250.000 pesetas. (art.8)*
- *La póliza de seguro, que el asegurador ha de entregar al tomador, deberá contener una referencia clara y precisa a las normas aplicables a esta modalidad contractual. (art. 10)"*



7. Araudia garatzen duen testu hori ez ezik, azaroaren 8ko 30/1995 Legea ere kontuan izan behar da. Lege horrek aseguru pribatuak arautu eta ikuskatzen ditu, eta, zenbait ataletan, erantzukizun zibileko derrigorrezko aseguru aipatzen du.

Alde batetik, izena aldatzen dio martxoaren 21eko 632/1968 Dekretuak onartutako Testu bateratuari, berriz idazten du haren lehen idazpurua, eta idazpuru horretan sartzen du 3 b) artikulua. Artikulu horren aplikazioak sortu du, hain zuzen, espediente hau.

Beste alde batetik, aseguruaren egiaztapena arautzen du, eta arau-hauste berriaren eremua zehazten du. Honako hau dio hamahirugarren xedapen iragankorrean:

"Hasta la entrada en vigor de la disposición reglamentaria que habilita el párrafo segundo del número 2 del artículo 2 de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la Circulación de Vehículos a Motor, en su redacción dada por la disposición adicional octava de la presente Ley, la forma de acreditar la vigencia de los contratos de seguro al objeto de que las personas implicadas en un accidente de circulación puedan averiguar a la mayor brevedad posible las circunstancias relativas al contrato y a la entidad aseguradora se ajustará a las siguientes reglas:

1. El tomador del seguro deberá llevar en su vehículo el recibo de prima, correspondiente al período de seguro en curso, a que hace referencia el artículo 11 del Reglamento del Seguro de Responsabilidad Civil derivada del Uso y Circulación de Vehículos de Motor, de suscripción obligatoria, aprobado por Real Decreto 2641/1986, de 30 de diciembre. El incumplimiento de esta obligación será sancionado con 10.000 pesetas de multa por las autoridades y con arreglo al procedimiento previsto en el artículo 3 c) de la Ley sobre Responsabilidad Civil y Seguro en la Circulación de Vehículos a Motor, según redacción dada por la disposición adicional octava de la presente Ley."

Ikusten denez, testu horrek ezartzen du legea haustean nori egotzi behar zaion erantzukizuna, eta aseguru-hartzaileari leporatzen dio, ez ibilgailuaren gidariari.



8. Azaroaren 8ko 30/1995 Legea izan zen -aseguru pribatuak arautu eta ikuskatzekoa- motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilaria eta aseguruari buruzko Araudi berriaren aurrekoa. Araudi berria urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretuak onetsi zuen.

Ez dugu araudi hori aztertuko, ikertzen ari garen egintza gertatu ondoren jarri baitzen indarrean.

Hala ere, araudi horren xedapenetakoren bat baliagarria izan daiteke gainontzeko arauak interpretatzeko, eta, zehazki, aztergai dugun zigorra jartzeko bide eman zuen araua.

Horrela, testu horrek adierazten duenez, aseguru indarrean dagoela egiaztatzeko agiria -ibilgailuan eraman beharrekoa-, azken batean, aseguru-saria ordaindu izanaren egiaztagiria da, eta asegurataileak aseguru-hartzaileari ematen dio.

Ibilgailuaren gidaria eta aseguru-hartzailea pertsona bera ez direnean, gidariak ez dauka zerikusirik aseguratailearekin eta, beraz, ezta aseguru egiteko erabili diren agiriekin ere. Orduan, gidaria ezin da agiri batzuk ez izatearen erantzuletzat jo, baldin eta agiriok eskuratzeko ahalmenik ez badauka.

Horren gainean, oso esanguratsua da auto alokatuen kasua: kasu horretan, gidariak ez du erantzukizunik aseguruaren agiriak aldean ez badaramatza. Aitzitik, autoaren titularra -jabea- geratzen da erantzukizunetik libre, baldin eta bost egunean autoak aseguru duela egiaztatzen badu.

Adierazi dugunez, ibilgailuak aseguru duela eta hori indarrean dagoela egiaztatzen duten agiriak gidariak eskuratzetik ez badauzka, ezin da hura lege-haustearen erantzuletzat hartu. Argudio horrek ez dauka zerikusirik urtarrilaren 12ko 7/2001 Errege Dekretua argitaratzearekin.

Gure ustez, lehenagoko arauditik ere ondorio bera atera zitekeen. Izan ere, azaroaren 8ko 30/1995 Legeak araudi honen antzeko elementuak aipatzen zituen bere erregulazioan.

9. Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide segurtasunari buruzko Legeak -martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoak- ibilgailuen erregistroan agertzen den titularrari egozten dizkio ibilgailuaren agiriekin zerikusia duten lege-urratzeak, nahiz eta, egia esan, urtarrilaren 12ko



7/2001 Errege Dekretua indarrean jarri arte ez zuen inolako xedapenetan adierazi agiri horien artean zeudela derrigorrezko aseguruari buruzkoak.

10. Erreferentzia horiek guztiak aztertu eta gero, ez dugu legezko oinarriak aurkitu Herrizaingo Sailaren tesiarekin bat etortzeko -honek dioenez, gidariak egin zuen, ez ibilgailuaren titularrak, motordun ibilgailuen zirkulazioko erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko Legearen 3 b) artikuluan agertzen den lege-haustea-.

Era berean, ez dugu ulertzen araudi berria indarrean jartzeak nola aldaraz zezakeen, erabat gainera, legeak ordura arte erantzukizuna egozteaz adierazitakoa, lege horren testua izpirik ere aldatu gabe, eta hain funtsezkoa den alaketaz azalpen gehiago eman gabe.

Aitzitik, idazki honetan garatutako argudioetatik ondorio hau ateratzen dugu: ez zela bidezkoa lege-haustea pertsona horri leporatzea, baizik eta, izatekotan, aseguru-hartzaileari, eta, horregatik, hari ezarritako zigorra ez litzatekeela baliozkoa izango.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

5/2003 GOMENDIOA, martxoaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari egina

Beharrezko tramiteak egin ditzala zigor espediente jakin batean pertsona batek erantzukizunik ez duela adierazteko, espediente hori eta derrigorrezko dirubilketa baliorik gabe uzteko, eta hori dela-eta ordaindu diren diru-kopuru guztiak itzultzeko.